**BAI EUSKARARI.** Planak hiru ardatz eukiko ditu: euskalgintzea, enpresa mundua eta udalak



NEKANE AKARREGI

## Euskerearen aldeko konpromisoa hartu dabe eskualdeko eragileek

Ez dago atzera egiterik. Bai Euskereari akordioa herririk herri zabaltzeko ardurea hartu dau Lea-Artibai eskualdeak. Udalek, Kontseiluak eta kultur alkarteek orain aste bi hartutako konpromisoari jarraipena emon deutsie. Euskerea arlo guztietatara eroan nahi da. Holan, asmo hori hiru zutabetan oinarrituta egingo da: euskalgintzea, enpresak eta Udala. Lehenengo batzarra Markinan egin zan. Bertan hainbat arlotako ordezkariak eta banakakoak batu ziran, asmoagaz bat datozala agertzeko.

BERRIATUA

## Lea-Artibaiko ardi txakurren txapelketea egingo dabe bihar

Lore Bengoetxea

Berriatuko San Pedro jaien barruan, bihar Lea-Artibaiko ardi txakur txapelketea jokatuko da. Egunari pelota partiduekin emongo jako jarraipena. Profesionalak ikusi ahal izango dira, aurrez aurre.

Bigarren urtez jarraian, Lea-Artibaiko ardi txakurrak zereginean ikusteko aukerea eukiko dabe Berriatura doazanek. Eguerdiko 12:45ean aurrera ipini dabe, aurten, ordua.

Beste alde batetik, arratsaldeko 17:00etan profesionalen arteko pelota partiduak jokatuko dira Mendibarren frontoian. Zestaz, palaz eta eskuz izango dira neurketak. Aurrez aurrekoekin, amaitutzat joko ditue berriatuarrek aurtengo San Pedro jaiak.

# Zapato Azulean dzanga egiteko, dana prest

### Bolo-Bolo aldizkariak Euskal Herriko kamiseta azokea be antolatzen dau, gaur

Lore Bengoetxea

Bolo-Bolo aldizkarikoek dana lotuta daukie, gaur, Zapato Azule beste urte baten be ganoragaz hasteko. Urtero lez, aurten be Euskal Herriko kamiseta egileek bertan daukie txokoa, euren beharra danen begitara agertzeko.

Orain dala lau urte ekin eutsien Bolo-Bolokoek Zapato Azule jaia antolatzeari, Ondarroako San Pedro jaiak berreskuratzeko gogoagaz. «Inguruan sanpedroak edonon ospatzen diranez, hemen beste izen bat emon nahi izan geuntsan, eta, holan, Zapato Azule jaio zan», azaldu dau antolatzaileen taldeko Joserra Egiluzek.

Arrantzale egunean modura, mahoizko erropak janztea derrigorrezkoa da bagilaren azken zapatuan, Zapato Azule jaio zanetik. Jentea ezeze, kaleak be kolore horregaz bete nahiko leukiez. «Aurten, moilako bizilagunei balkoietan mahoizko erropak eskegiteko eskatu deutsegu», dino Egiluzek.

**Alde zaharra, gunea**

Jai gunea kofradia zaharra eta inguruak badira be, herri guztiak egiten dau muts Zapato Azulean. «Urtetik urtera ikusi dogu jenteak gogo handiagaz hartzen dauela Zapato Azule», azaldu dau Bolo-Bolokoak. «Dana dala, argitu beharra dago ekimen hau ezin izango gendukela aurrera atera hainbeste lagunen parte hartzerik barik», azpimarratu dau.

Aurten be Euskal Herriko kamiseta azokea prestatuko dabe, jaia bitxi egiten dauen beste ekitaldi bat. Barritasunen artean, Ondarroako kanten entzunaldia antolatu dabe Kale Kutzeko eskaileretan, jaiaren azken txanpan. Jentea bertan parte hartzera animau dabe antolatzaileek, «jaiei amaiera ederra emoteko».




NEKANE AKARREGI

Bolo-Bolo aldizkarikoek eukiten daben laguntzea azpimarratu dabe.

EGITARAUA

**BAGILAK 30, ZAPATUA**

**08:30ean:** Dinamartxeak Tolosako kiroldegitik urtengo dau.
**12:00etan:** Bolanderak botako ditue, Antiguatik eta Zubi Zaharretik. Ordu horretan Euskal Herriko IV. Kamiseta azoka zabalduko da, plaza gainean; AEKkoek taloak prestatuko ditue kofradi zaharraren aurrean, Uxola Alkarteak txitxarro frijituak eskainiko ditu iturri alboan, eta Bolo-Bolok txosna zabalduko dau tunel alboan.
**13:00etan:** Uretako jokoei hasierea emongo jake: batelen erakustaldia, kukañea eta zubitik saltoak izango dira. Bizkaiko albokariek kalejiran urtengo dabe Kale Handi eta Elixope bitartean. San Pedro txurrutik kalejirea hasiko da, alde zaharreraino: Musika Bandea, Saliña-Saliñako dantzari, txistulari eta erraldoiak joango dira kalejiran.
**13:30ean:** Albokariak kale kutzean.
**13:45ean:** Kalejirea alde zaharrera helduko da. Saliña-Saliña kofradia zaharraren aurrean.
**14:00etan:** Dinamartxa helduko da. Musika Bandearen ongi etorria, irrintzilariak, pregoia balkoitik eta omenduen txupinazoa zubitik; Unanue Kamara abesbatza; bertsolariak balkoitik; txalapartariak eta Nahia Iparragirre dantzaria; eta albokariak.
**17:00etan:** Umeentzako jolasak.
**19:30:** Gaitarien kalejirea alde zaharretik San Pedro txurrura. Bertatik, barriro be Saliña-Saliñak urtengo dau alde zaharrera.
**20:00:** Saliña-Saliña alde zaharrean eta kamiseta azokako sari banaketea.
**20:30:** Euskal erromeria:banakotik larrain dantzara.
**21:15:** Ondarroako kanten entzunaldia kale kutzeko eskaileretan.
**22:00:** «Ahal dauenak ahal dauen lekura afaltzera».

AGENDEA

**BERRIATUA**
**San Pedro jaiak:** Goizeko 11:00etan futbito maratoia hasiko da. Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, mus eta briska txapelketak jokatuko ditue, plazan. Izena emoneran 1.000 pezeta erria beharko dira, bikoteko. Gaueko 22:00etan *Berritxu saria* bertso saioa iragarri dabe.

**LEKEITIO**
**San Pedro Txiki:** Baserritarren azoka berezia izango da merkau plazan; buruhandiak, eta Don Terentzio eta Doña Tomasa kalerik kale; erromeria eguerdian eta musika klasikoa elizan: Aitor Olea organu-joleak eta Josu Aiarzaguena tronpeta-joleak 22:00etan eskainiko dabe emonaldia. Egunekoagaz amaitzeko, kalejirea egongo da gauerdian talatik Udaletxeraino. Bihar, San Pedro baltza eguna dala eta antolatu dan egitarauaren barruan, Xabier Amurizaren *Bizkaiko kopla zaharrak* ekitaldia egongo da 17:30ean Udaletxeko pleno aretoan, eta Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, kiroldegian, 19:30ean.

**MUNITIBAR**
**San Pedro jaiak:** Herri bertso bazkaria egongo da, 14:00etan, Peru, Lazkano eta *Akerragaz*. Arratsaldeko 19:00etan Teatro Mohikano taldeak *Txamuskin* antzezlana aurkeztuko dau, frontoian. Gaueko 23:00etan erromeria egongo da Imuntzo eta Belokigaz. Bihar pelota partiduak ikusi ahal izango dira, eta Korta herriko pelotariari omenaldia egingo deutsie. Jon Maia eta Jokin Solozabalen bertsoekin amaituko ditue jaiak.